# 3. GAIA
# GARAPENA ETA GLOBALIZAZIOA

**Gizarte Langintzarako Ekonomia**

## 3.2. Garapena

- Garapen Ekonomirako Oinarriak
- Hazkundea eta Garapena. Ikuspegi Alternatiboak
- Genero eta Garapena

# GARAPEN EKONOMIKOAREN OINARRIAK



# EKONOMIA INDUSTRIALA (XVIII-XXI MENDEAK)

ENERGIA ITURRI BERRIAK

+

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOAK

▲ ESKALA-EKONOMIAK

- KONTZENTRAZIOA
- ENPRESAK GERO ETA HANDIAGOAK
- SOLDATAPEKOTZE PROZESUA
- ▼AUTONOMO ETA ENPRESARIEN KOPURUA

# HAZKUNDEA ETA GARAPENA. IKUSPEGI ALTERNATIBOAK

A. HAZKUNDEA (BPG) MAXIMIZATZEA

B. GARAPEN IRAUNKORRA

C. DESHAZKUNDEA

D. GAITASUN PRODUKTIBOA MAXIMIZATZEA

# HAZKUNDEA ETA GARAPEN EKONOMIKOA. DEFINIZIOA ETA NEURKETA

- **HAZKUNDEA GARAPEN EKONOMIKOAREN NEURRI GISA**

- **HAZKUNDEA: ▲ ONDASUN ETA ZERBITZUEN EKOIZPENA / PRODUKZIOA (▲ BPG)**

- **KRITIKA: EZ DU ZENTZURIK LURRALDE BAKOITZEKO PREZIOEN MAILA EZ BADA KONTUAN HARTZEN**

- → **EAP (Erosteko Ahalmen Parekatua)ren arabera neurtutako BPG**

# HAZKUNDEA ETA GARAPEN EKONOMIKOA. DEFINIZIOA ETA NEURKETA

- **KRITIKA: EZ DU ZENTZURIK EZ BADIRA KONTUAN HARTZEN BIZTANLE KOPURUA ETA BIZTANLERIAREN HAZKUNDEA**

  → **Biztanleko BPG / Errenta Per Capita**

- **HAZKUNDEA FUNTSEZKO FAKTOREA DA GARAPEN EKONOMIKOAN, BAINA EZ DA BAKARRA: Beste adierazle batzuk gero eta garrantzitsuagoak bihurtzen dira, oinarrizko beharrak asetzen diren arabera.**

- **Hazkundetik aparteko beste adierazle batzuk aurkitzea ez da erraza. Errenten desorekak neurtu behar dira, zorpetzea, hazkundearen iraunkortasuna, gizartearen ongizatea, …**

  - Nazio Batuen Erakundea: Giza Garapenaren Indizea.

# BIZTANLEKO BPG ETA KRITIKAK

➔ **GARAPEN EKONOMIKOAren ohiko kontzeptua = Hazkundea ⇒ Adierazlea = Δ BPG**

➔ Barne Produktu Gordina (BPG): Urte batean herrialde batean sortutako errenta

⇒ Ekonomia baten neurria; urtero banatzeko dagoen aberastasuna

➔ BPG = Urte batean herrialde batean sortutako balio erantsiak /produkzioa sektore guztietan: Nekazaritzan + Industrian + Zerbitzuetan

**Biztanleko BPG = Errenta *per capita* ⇒ Ekonomia baten bataz besteko bizitza maila**

➔ **Horren arabera sailkatzen dira herrialde aberatsak (garatuak) eta pobreak (garapen bidean)**

➔ Herrialdeen artean biztanleko BPG alderatzeko tresnak:

a) Merkatuko truke tasak (Moneta ezberdinak erabili ezkero)
b) Erosteko Ahalmen Parekatua (EAP-**PPA**)

# ZORPETZEAREN ARAZOAK

**ERAGINAK:**

**Zorrak handiagotzerakoan, dituzten errenten arabera baino ondasun eta zerbitzu gehiago erosteko aukera dute gizakiek. Eta enpresek eta gobernuek ere, dituzten sarreren arabera baino gehiago. HORRELA, handitu egiten da BPG**

**Baina zorpetzearen ondorioz: eskuratutako dirua itzuli eta interesak ere ordaindu behar dira. Beraz, gizakiek, enpresek eta gobernuek duten gastatzeko ahalmena murrizten da. HORRELA, BPG ere murriztu egiten da.**

# ZORPETZEAREN ARAZOAK

**Zor horien ordainketa atzeratuz, hurrengo belaunaldiaren lepotik aberasteko aukera izan dezake belaunaldi batek. Metatutako zor horiek ordaindu beharko dituelako hurrengoak.**

**Horixe gertatu da Europan 70etako hamarkadatik aurrera. Garai (neo)liberalaren "hazkundea", neurri handi batean, gero eta zorpetze maila handiagoan oinarritu da eta.**

# HAZKUNDEAREN MUGAK

➔ 1970etan, hazkundearen mugengatiko kezka zabaldu zen. (Erromako Kluba)

➔ 1980etan, hainbat arazo/erronka berri:
industrializazioa ⇒ Itxaso eta airearen kutsadura, ozono-geruzaren desagerpena, ur gezaren eskasia, petrolioaren agortzea ⇒ sistema ekonomikoa eta oreka ekologikoa bateraezinak ote?




Fuente: ONU, *World Economic and Social Survey-2009*

## Hazkundearen Mugak:
## Thomas Malthus eta Erromako Kluba

➔ **Thomas Malthus** (1766-1834): Biztanleria progresio geometrikoan hazten den bitartean, elikagaien produkzioa progresio aritmetikoan baizik ez da hazten. Beraz, biztanleriaren hazkundea ez da eutsigarria

➔ **Erromako Kluba**: Neo-malthusianismotik hurbil zegoen zientzialari eta politikoek osatutako taldeak sortuta 1968an.

## KONTUAN HARTZEKO:
## AURRIKUSPEN HORIETAKO ASKO EZ DIRA BETE:

- ➔ **T. Malthus-en iragarpenak elikagaiei buruz**
- ➔ **Ozono-Geruzaren desagerpena**
- ➔ **Petrolioaren gailurra eta agortzea**

# KARBONO-ISURIAK 1960-2015



# Biztanleko karbono-isuriak, 2017 (karbono tona metrikoak)



# GARAPEN IRAUNKORRA
# (=JASANGARRIA / EUTSIGARRIA / SOSTENGARRIA)

➔ Brundtland txostena = Ingurugiro eta Garapenerako Munduko Batzordea ⇒ GARAPEN IRAUNKORRA, “gaur egungo belaunaldiaren beharrak asetzen ditu, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe”

➔ **3 kontzeptu** biltzen ditu:

**1) IRAUNKORTASUN EKONOMIKOA**
**Oraingo hazkundeak ez du konprometitu behar etorkizuneko hazkundea. Ej: Lehengaien agorpena, gain-zorpetzea, jaiotza-tasa.**

**2) IRAUNKORTASUN SOZIALA**

**Oreka sozialak, aberastasunaren banaketa, lanaldia, elkarbizitza, etab.**

**3) INGURUGIRO-IRAUNKORTASUNA**

# DESHAZKUNDEA

➔ deshazkunde kontzeptua *antiglobalizazioaren* gizarte-mugimenduetan sortu zen, **etengabeko hazkundearen ideiari aurre egiteko asmoz**

➔ Latouchen arabera (2009) kontsumo-gizartearen zirkuluak honakoak biltzen ditu:

1.- publizitatea ⇒ kontsumitzeko desioa sortu

2.- kreditua ⇒ bitartekoak eskaintzen ditu

3.- programatutako eta azeleratutako zaharkitzapena (obsolescencia) ⇒ beharrak berritzen ditu

# GAITASUN PRODUKTIBOA HELBURU GISA

**➔ BIZTANLEKO GAITASUN PRODUKTIBOA HANDIAGOTZEA ERREFERENTZIA GISA**

➔ Horretarako: Gaitasun energetiko eta teknologikoa, azpiegiturak eta gizakien bataz besteko prestakuntza sustatu behar dira

➔Ez du nahitaez eskatzen produkzioa handiagotzea

➔Gizarte bakoitzaren helburuen arabera, hauek izan daitezke ondorioak:

- ➔Produkzioa handiagotu
- ➔Lanaldia murriztu
- ➔Iraunkortasuna sustatu
- ➔Bizitzaren kalitatea hobetu

**➔ Barne Produktu Gordina askotan izan da kritikatua**

**A)** produkzioa eta hazkundea **neurtzeko arazoak**:
- autokontsumorako produkzioa, eta merkatutik kanpo diren etxean egindako lanak eta zaintzak **ez dira kontuan hartzen** ⇒ jarduera ekonomikoaren azpibalorazioa, etc.

**B)** ondasun- eta zerbitzu-produkzioa **ez da ongizatearen adierazlea**:
- **ez da kontuan hartzen errentaren banaketa** ⇒ BPGa berdin-berdin handitzen da biztanle aberats eta biztanle pobre baten euro batekin

- **berdin-berdin kontuan hartzen da elikagaien eta armen produkzioa** ⇒ ongizatea bultzatzen (kaltetzen) duten jardueren azpibalorazioa (gainbalorazioa)

**C)** BPGak ez du kontuan hartzen sostengarritasun ekologikoa**:**
- **ez ditu ezberdintzen jarduera kutsakorrak eta ez-kutsakorrak** ⇒ ez da kenketarik egiten ingurugiroa kaltetzean; are gehiago, kutsadura kentzeko gastuak batzen dira

- **ez du kontuan hartzen natur baliabideen desgastea** (hazkunde ekonomikoaren gainbalorazioa)

# LABURPENA
## EKONOMIAREN OINARRIZKO HELBURUA

# PROPOSAMEN ALTERNATIBOAK

➔**BPG (EDO BIZTANLEKO BPG ERREALA)-REN HAZKUNDEA**

➔**GARAPEN IRAUNKORRA**

➔**DESHAZKUNDEA**

➔**BIZTANLEKO ETA ORDUKO GAITASUN PRODUKTIBOA SUSTATZEA (EZ DERRIGORREZ PRODUKZIOA MAXIMIZATZEA)**

# Giza garapenaren indizea
# eta Nazio Batuen gainerako garapen-indizeak

➔ 1990tik Giza Garapenaren Indizea kalkulatzeko Nazio Batuen garapenerako programak **hiru ardatz** erabiltzen ditu: 1) bizitza luze eta osasuntsua izatea; 2) ezagutza-maila; 3) bizitza duina izateko beharrezko baliabideak eskuratu ahal izatea

➔ jakina, giza garapenaren kontzeptua indize batean bildu daitekeena baino zabalagoa da, eta honakoak ere kontuan hartu beharko lirateke: askatasun politikoa, ekonomikoa eta soziala; bizitza sormenduna/produktiboa izateko aukera ; giza eskubideen bermea, …






➔ Giza Garapen Indizea kalkulatzeko biztanleko errenta zenbat eta handiagoa izan, orduan eta eragin txikiagoa haren eragina (logaritmoak erabiltzen dira)

➔ hala ere, indizeak islatzen dituen **emaitzak ez dira gehiegi aldentzen biztanleko errentaren araberako emaitzetatik**

# Giza Garapenaren Indizea (2017)

| Clasificación según el IDH | Índice de Desarrollo Humano (IDH) | Esperanza de vida al nacer | Años esperados de escolaridad | Años promedio de escolaridad | Ingreso nacional bruto (INB) per cápita |
|---|---|---|---|---|---|
| | Valor | (años) | (años) | (años) | (PPA en $ de 2011) |
| | 2017 | 2017 | 2017[a] | 2017[a] | 2017 |
| **DESARROLLO HUMANO MUY ALTO** | | | | | |
| 1 Noruega | 0,953 | 82,3 | 17,9 | 12,6 | 68.012 |
| 2 Suiza | 0,944 | 83,5 | 16,2 | 13,4 | 57.625 |
| 3 Australia | 0,939 | 83,1 | 22,9 [b] | 12,9 | 43.560 |
| 4 Irlanda | 0,938 | 81,6 | 19,6 [b] | 12,5 [c] | 53.754 |
| 5 Alemania | 0,936 | 81,2 | 17,0 | 14,1 | 46.136 |
| 6 Islandia | 0,935 | 82,9 | 19,3 [b] | 12,4 [c] | 45.810 |
| 7 Hong Kong, China (RAE) | 0,933 | 84,1 | 16,3 | 12,0 | 58.420 |
| 7 Suecia | 0,933 | 82,6 | 17,6 | 12,4 | 47.766 |
| 9 Singapur | 0,932 | 83,2 | 16,2 [d] | 11,5 | 82.503 [e] |
| 10 Países Bajos | 0,931 | 82,0 | 18,0 | 12,2 | 47.900 |

**DESARROLLO HUMANO BAJO**

| Clasificación según el IDH | Índice de Desarrollo Humano (IDH) | Esperanza de vida al nacer | Años esperados de escolaridad | Años promedio de escolaridad | Ingreso nacional bruto (INB) per cápita |
|---|---|---|---|---|---|
| | Valor | (años) | (años) | (años) | (PPA en $ de 2011) |
| | 2017 | 2017 | 2017[a] | 2017[a] | 2017 |
| 180 Mozambique | 0,437 | 58,9 | 9,7 | 3,5 [f] | 1.093 |
| 181 Liberia | 0,435 | 63,0 | 10,0 [q] | 4,7 [j] | 667 |
| 182 Malí | 0,427 | 58,5 | 7,7 | 2,3 [f] | 1.953 |
| 183 Burkina Faso | 0,423 | 60,8 | 8,5 | 1,5 [q] | 1.650 |
| 184 Sierra Leona | 0,419 | 52,2 | 9,8 [q] | 3,5 [j] | 1.240 |
| 185 Burundi | 0,417 | 57,9 | 11,7 | 3,0 [q] | 702 |
| 186 Chad | 0,404 | 53,2 | 8,0 | 2,3 [q] | 1.750 |
| 187 Sudán del Sur | 0,388 | 57,3 | 4,9 [q] | 4,8 | 963 [k] |
| 188 República Centroafricana | 0,367 | 52,9 | 7,2 [f] | 4,3 [j] | 663 |
| 189 Níger | 0,354 | 60,4 | 5,4 | 2,0 [j] | 906 |

# Giza garapenaren indizea (1990-2017 bilakaera herrialde-multzoetan)



# GENEROA ETA GARAPENA

GIZONAK ETA EMAKUMEEN ARTEKO BETIKO LAN BANAKETA

(Lanbidea / lan “produktiboa” – Etxeko lana)

XX. MENDEAN:

- Aurrerapen Teknikoa: Indar fisikoak gero eta garrantzi gutxiago du lan “produktiboan”
- Gero eta erakargarriagoa bihurtzen da lan “profesionala” (lana ez da lehen bezain gogorra edo deserosoa)

BERAZ:

ZERGATIK EZ EKARRI EMAKUMEA PROZESU PRODUKTIBORA?

# GENEROA ETA GARAPENA

XX. MENDEKO 70etan:
Ipar Europako Mugimendu Feministak:
Emakumearen laneratzea:

- Ezin daiteke oinarritu familiako asteko 40 lan ordu gehitzean
- Lana banatzean oinarritu behar da. Bai etxeko lana zein merkatukoa.

HALA ERE, HORREN AURKAKOA GERTATU ZEN HAIN ZUZEN:

- Familia bakoitzeko asteko 40 lan ordu gehitzen dira
- Argi geratzen da prozesuaren helburua ez zela izan emakumearen emantzipazioa, lan esku merkearen horniketa sustatzea baizik.

# GENEROA ETA GARAPENA

## ONDORIOAK:

- Familien lanaren gain-ustiapena
- Lansari 1 / 5,2 gizakitik Lansari 2 / 3,2 gizakira igarotzen da (Lansari 1 / 1,6 gizaki)
- Kontsumorako gaitasuna handiagotzen da
- Ehundaka milioi emakumeren gain-esplotazioa hainbat belaunalditan: Asteko 80, 90 edo 100 lanordu.
- Astialdiaren murrizpen nabaria
- Jaiotze-tasaren gainbehera

# GENEROA ETA GARAPENA

- **OINARRIZKO HELBURUA**

- **Enpresen etekinak sustatu, lanesku merkearen horniketa erraztuz**

- **AKATS KONTZEPTUALA:**

- **Etxeko lana ere lan produktibotzat ez hartzea**

# Generoa eta garapena

➔ Genero Ezberdintasun Indizea

⇒ emakumearen desabantailak gizonarekiko 3 dimentsioetan:

ugalkortasun-osasuna, ahalduntze/jabekuntza, eta lan merkatuan partaidetza

**3 dimentsio eta 5 adierazle**

**22. taula. Genero Desberdintasunaren Indizearen –GDI– osagaiak**

| **Genero Desberdintasunaren Indizearen –GDI– osagaiak** | |
|---|---|
| Ugalketa-osasuna | Amen heriotza-tasa 100.000 jaiotzako |
| | Nerabeen ugalkortasun-tasa 1.000 emakumeko |
| Jabekuntza | Bigarren hezkuntza edo gehiago egin duten emakumeak |
| | Emakume parlamentarien ehunekoa |
| Lan-merkatua | Emakume okupatuen ehunekoa |

# Genero Ezberdintasun Indizea (2014)




➔ Indizeak ez ditu dimentsio garrantzitsuak kontuan hartzen, datu falta dela-eta: denboraren erabilpena, jabetza-eskuragarritasuna, lanbide-banaketa, soldata-arrakala…

➔ genero-ezberdintasunaren indizea ez dago lotuta giza garapen indizearekin, baina emaitzek agerian jartzen dutenez badago erlazioa: **giza-garapen indizea txikiagoa den herrialdeetan, genero-ezberdintasuna handiagoa da**